

Nafarroako Kulturaren Behatokia

Covid-19k Nafarroako kulturaren sektorean duen eragina behatzeko eta jarraipena egiteko gailu dinamikoa

Gailuaren arkitektura:

Input-ak/Gogoetak	Behaketa fokukak	Outputak/Produktuak
<ul style="list-style-type: none"> • Mahai sektorialak • Estatistika iturriak • Lankidetzaren sareak • Preskriptoreak • Sektoreari inkesta 	<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia • Enpresak • Enplegua • Jarduera • Beste inpaktu batzuk 	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazle Panela • Krisi koadernoak

Luzera-analisia:

Aurreikuspena-aukerak/Eragina > martxoa-maiatza epeko behaketa > Ekaina-abuztua epeko behaketa

Enpresen oinarrizko profila... eta haien Covid aurretiazko itxaropenak

▪ **Langile autonomoek eta enpresa txikiek osatutako enpresa-sarea**

- ❖ Kultura-arloko 1.455 enpresa (enpresa-sare osoaren %3,9)
- ❖ Lau enpresatik hiru, gehienez 5 enplegukoak; lau enpresatik bat, kontratatutako enplegurik gabekoa
- ❖ Joera 2020ko urtarrilera arte: kultura-enpresen hazkundera 2019ko datuekin alderatuta (+% 7,4) (+% 0,1 Nafarroako enpresa-sare osoan).

▪ **Atomizazioa eta behin-behinekotasuna, Nafarroako kultur enpleguaren ezaugarri nagusiak**

- ❖ Enplegu autonomoaren pisu esanguratsua kultura-sektorean (% 31), Foru Komunitate osoarekin alderatuta (% 17,7)
- ❖ Kultura arloko enpleguaren % 36,7 emakumeek betetzen dute, eta horietatik % 32,7 autonomoak dira.
- ❖ Behin-behinekotasun handia: 2019an, sektorean egindako hamar kontratutik bederatzi aldi baterakoak izan ziren (% 90,6), eta 10 kontratutik 4 lanaldi partzialekoak (% 42,2).

▪ **Zer aurreikuspen zituzten enpresa horiek? Behatokiaren inkestaren arabera, sektorearen aurreikuspen positiboa 2020ko ekitaldirako, Covid-19 agertokiaren aurreko aldira**

- ❖ Diru-sarreraren zenbatespena % 8,5 da, 2019koa baino handiagoa.

Lehen inpaktuaren behaketa: martxoa-maiatza aldia

Enpreetan eragina

- Murrizketa nabarmena kultur enpresen Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuetan, pandemiaren aldi murriztatzailenean
 - ❖ Krisiaren hasiera: -% 4
 - ❖ Pandemia garai betean: -% 24,4
 - Neurri handiagoan enpresa txikienei eragiten die
 - 10etik 6, arte eszenikoen sektorekoak dira

Fakturazioan eragina

Aldia	1HH	2HH	3HH	4HH
2019	%15,1	-%8,6	-% 22,8	-% 14,6
2020	-% 1,7	-% 67,0		

- 2020ko bigarren hiruhilekoan, kultur sektoreak fakturazioaren bi heren galdu ditu 2019ko datuekin alderatuta
- Kopuru absolutuetan, 1,6 milioi euro

Kultur sektorean jasandako BEZaren zerga-oinarrien urte arteko aldakuntza-tasak

Enpleguan eragina

- **Kulturaren sektorean Gizarte Segurantzara afiliatutako pertsonen kopuruak behera egin du, goranzko joeraren ondoren**
 - ❖ Martxo: geldialdia
 - ❖ Maiatza: martxoarekin alderatuta, % 1,1eko murrizketa
- **Galera nabarmenagoa Autonomoen Erregimenean (-% 3,6 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta)**
- **Enplegu-galeraren eragin handiagoa emakumeengan gizonengan baino (-% 3,9 eta -% 0,7, hurrenez hurren, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta)**
- **Arte eszenikoen sektoreak jasan du kalterik handiena (-% 11,8, 2019ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta)**
- **779 pertsona izan dira LTE baten eraginpean, lan-harremana aldi baterako eteteagatik % 80, lanaldia murrizteagatik % 20, eta % 59,4 gizonak dira. Inkestaren arabera, sektoreko langileen heren bat inguru dira aldi baterako lan-erregulazioko egoeran daudenak.**
- **Inkestaren arabera, plantillak % 26,6 murriztu dira Covid aurreko egoerarekin alderatuta.**

Zer neurri aplikatu dituzte enpresek krisi-egoerara egokitzeko?

Telelana	%46,3
Jarduera murriztea konfinamendua amaitu arte	%33,6
Tresna teknologikoen bidez jendearentzat irekitzea	%27,0
Jarduera digitalizatzeko inbertsioak	%25,3
Langile-plantillen doikuntza	%21,9
Beste jarduera batzuk	%10,1

Behatokiak aplikatutako inkestaren arabera, sektoreak digitalizazioaren eta teknologia berrien aldeko apustua egin du krisiari hainbat ikuspegitik aurre egiteko (telelana, ekipamendua, publikoarekiko interakziorako tresna berriak...).

Zer neurri publiko hartu dituzte enpresek krisiaren eragina minimizatzeko? (Behatokiaren inkestaren datuak)

Erakundeek hartu dituzten premiazko neurriak, Covid-19 dela-eta administrazioek onartutakoen artean	%
Autonomoentzako neurriak (aparteko prestazioak, luzamenduak edo atzerapenak kotizazioetan, ordainketetan, zorren kasuan)	27,0
Zerga-betebeharrak malgutzeko neurriak eta beste administrazio-prozedura batzuk (geroratzeak, eteteak, luzapenak, itzulketak, zatikatzeak...)	24,2
Enplegua malgutzeko neurriak (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak, Enplegu-erregulazioko espedienteak)	18,2
Finantzaketa eta likidezia babesteko neurriak	17,3

Lehen deseskalatzearen behaketa: ekaina-abuztua aldia

- **Behatokiaren inkestaren arabera, sektorearen hasierako aurreikuspenetan nolabaiteko susperraldia espero da 2020rako galerei dagokienez**
 - ❖ Aurreikuspenen arabera, urteko galerak % 31,2 izango dira, konfinamendu-hilabeteetan izandakoak baino gutxiago
 - ❖ Urtea bukatu arte jardueraren eta diru-sarreraren zati bat berreskuratzeko nolabaiteko itzaropena sumatzen da, are gehiago kontuan hartuta sektore batzuetan aurreikusitako jarduerak geroko datetara atzeratu direla.

Enpresetan eragina

- **Argia tunelaren amaieran? Ekainetik aurrera, Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuak zertxobait berreskuratu dira**
 - ❖ **Deseskalatzearen hasiera: +%7,5**

Enpleguan eragina (I)

- **Ekainetik aurrera, afiliazioaren joera zertxobait aldatu da, zifra positiboagoetara**
 - ❖ +% 0,8 ekainean
 - ❖ +% 0,6 uztailean
 - ❖ +% 0,5 abuztuan

Enpleguan eragina (II)

- **Aldaketa txikia aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetara atxikitako enpleguaren egoeran**
 - ❖ 8 enpresa gutxiago egoera horretan
 - ❖ Gehienak espediente aktiboarekin
 - ❖ Prestazioen arabera, maiatzetik aurrera, langileak enplegu-erregulazioko espedientetik sartu eta ateratzen dira etengabe
 - ❖ Inkestaren arabera, sektoreko langileen herena inguru aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran daude
- **Enplegu-erregulazioko espedienteak, enpleguaren iraunkortasunean garrantzitsuak**
 - ❖ Espediente hauetan dauden pertsonak Gizarte Segurantzari altan daude
 - ❖ Ez dago azkentze-espedienterik

Enpleguan eragina (III)

- **Enpleguaren egoera, Behatokiaren inkestaren emaitzetan oinarrituta, leundu egin da enplegua babesteko neurriak aktibatzeari esker:**
 - ❖ Enpleguaren % 32,2 mota horretako espedientean dago
 - ❖ % 7,3k enplegu autonomoari eusteko ezohiko neurriei heldu die
 - ❖ Inkestatutako enpresetako 10 langiletik 4k, gutxi gorabehera, nolabaiteko laguntza jaso dute edo jasotzen ari dira beren enpleguari eusteko (langile autonomoak + soldatapekoak)

Hemendik aurrera...

Behaketa-gailua elikatzen jarraitzeko beharra

- Sektoreari eta kultura-jarduerei buruzko datu estatistikoen multzoarekin
- Mahai sektorialen eta enpresen hausnarketarekin eta ekarpenekin
- **...2020 eta 2021eko eraginari eta bilakaerari buruzko begirada kuantitatibo eta kualitatiboen luzetarako azterketa ahalbidetzeko.**